

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013 – 2014 ikasturtea

**IKUSPEGI ETA METODO EZBERDINAK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN:
AHOZKOTASUNA LANTZEKO TAILERRAK**

Egilea: OIHANE APRAIZ BERASATEGI

Zuzendaria: AINTZANE ETXEBARRIA LEJARRETA

Leioan, 2014ko ekainaren 14an.

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa	4
1.1. Testuingurua: herria eta eskola	4
1.1.1. Herria	4
1.1.2. Eskola	5
1.1.3. Ikasgela eta irakasleak	6
1.2. Ahozko Adierazpena eta Ikaskuntza Tailerrak	7
1.3. Tailerren nondik norako nagusienak	9
1.3.1. Ezaugarriak eta egitura	9
1.3.2. Ekarpenak	10
1.4. Sintesia	10
2. Esku-hartze enpiriko baten proposamena: ahozotasuna lantzeko tailerrak.	11
2.1. Gaitasunak eta helburuak	12
2.2. Taldekatzeak: berdinen arteko tutoretza eta txokoak	13
2.3. Baliabidea: jolasak	15
2.4. Kronograma	16
2.5. Egitura	16
2.6. Irakaslearen zeregina	22
2.7. Ebaluazioa	22
3. Ondorioak	23
4. Erreferentzia bibliografikoak	24
ERANSKINAK	27

IKUSPEGI ETA METODO EZBERDINAK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN: AHOZKOTASUNA LANTZEKO TAILERRAK

Oihane Apraiz Berasategi

UPV/EHU

Gaur egungo eskola euskaldunak ikasleak alfabetatzeko erronka izateaz gain, ikasleak euskalduntzeko erantzukizuna ere bere gain hartzen du. Esku artean duzun lan honetan, herri eta eskola zehatz baten hizkuntza egoera aztertu da. Herritar gehienek euskaraz jakin arren, asko ez dira etxean euskaraz mintzatzen eta honek eragin zuzena du eskolako ikasleek ahoz adierazteko duten euskara maila baxuan eta elkarrekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzan, gaztelania alegia. Ahozkotasuna lantzeko hutsuneei eta eskolako hizkuntza beharizan errealei erantzuna emateko, esku-hartzeko enpiriko baten proposamena diseinatu da; jolasetan oinarritutako tailerren bidez euskarazko ahozko adierazpena lantzeko.

Euskara Ahozko Adierazpena Ahozko komunikazioa Ikaskuntza tailerrak

Hoy por hoy las escuelas vascas no sólo tienen el reto de alfabetizar a sus alumnos, sino que además toman la responsabilidad de euskaldunizar al alumnado. En el trabajo que tienes entre manos, se ha analizado la situación lingüística de un pueblo y escuela concreta. A pesar de que gran parte de la ciudadanía sabe euskera, no lo hablan en casa y esto afecta directamente al bajo nivel que el alumnado tiene para expresarse oralmente en euskera, y en el uso del castellano a la hora de comunicarse entre sí. Por todo ello, con el objetivo de dar respuesta a las carencias para trabajar la lengua oral y a las necesidades lingüísticas reales de la escuela, se ha diseñado una propuesta de intervención empírica para trabajar la expresión oral del euskera mediante talleres basados en juegos.

Vasco Expresión oral Comunicación oral Talleres de aprendizaje

Nowadays Basque schools not only have the challenge to teach to read and write, they also have the responsibility to encourage Basque speakers. The language situation of a specific village and school has been analysed in this project. Even though most inhabitants have a command of Basque, they don't speak that language at home and that has a significant effect both on the low command students have when communicating orally in Basque and on the use of Spanish when speaking each other. Taking into account the lack of resources to work the oral language and school's real linguistics needs, an empirical project proposal based on a workshop by using different games has been designed to encourage spoken Basque language.

Basque Oral expression Oral communication Learning workshop

Sarrera

Gizakiak izaki sozialak gara eta komunikatzeko beharra dugu. Keinu eta soinu bidez komunikatzen hasten gara, eta hazi ahala gure ideiak ahoz eta idatziz helarazten ikasten dugu; hizkuntza ikasten dugu alegia. Txikitatik gure familiak eta inguruak, eta ondoren eskolan geure burua nola adierazi behar dugun irakasten digute. Eskolan, beraz, hizkuntzen irakaskuntza formala jasotzen da, eta hauek irakasteko irakasleak ikuspegi eta metodologia ezberdinetan oinarritu daitezkeela ikusi ahal izango da lan honetan.

Txorierrri araneko herri zehatz baten eta bertako eskolako hizkuntzen egoeraren azterketa izan da lan hau burutzeko abiapuntua. Informazio bilketatik bertako eskolan hurrengo hutsunea detektatu da: euskarazko ahozko adierazpena lantzeko eta ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko beharra. Gradu Amaierako lan honek, hortaz, aipatutako herri txiki honetako eskolarentzako euskarazko ahozko adierazpena lantzeko esku-hartze proposamena izango du ardatz. Horretarako, jolasen bidez antolatutako ikaskuntza tailerrak izango dira oinarria; ikasleak taldekatzeko berdinen arteko tutoretzaren ezaugarriak hizpide direlarik.

Euskarazko ahozko adierazpenaren lanketarako bide berriak jorratzea beharrian erreala da eskolarentzat; ahozko hizkuntza lantzeko metodologia eta material berri baten beharra ez ezik, euskara beraren erabilera sustatzeko beharra ere badagoelako. Diseinatu den esku-hartze proposamenak, beraz, egoera errealer ahalik eta gehien egokitzea du helburu. Alegia, hezkuntza errealitatean dagoen hutsuneari erantzun bat eman nahi izan zaio.

Oinarri teorikoa biltzen duen lehen atalean, esku-hartze proposamenaren diseinua egiteko erabilitako oinarritzko informazioa irakur daiteke; herriari zein eskolari buruzkoa, baita esku-hartze proposamenaren diseinurako hizpide hartutako ikasgelari buruzko informazioa ere. Gainera, ahozko adierazpenaren eta ikaskuntza tailerrei buruz ere zenbait xehetasun emango dira lehen atalean. Ondoren, goian aipatutako oinarri teorikotik abiatuta esku-hartze proposamen enpirikoa aurkezten da; ahozkotasuna lantzeko tailerrak eta hauen nondik norakoak hain zuzen ere. Azkenik, aurreko guztiaren inguruan aritzen diren ondorioak irakur daitezke; esku-hartze proposamenaren eta honen aplikagarritasunaren inguruan gogoeta eginez.

1. Marko teorikoa

1.1. Testuingurua: herria eta eskola

Bizkaiko Txorierriko aranean kokatzen den 2446 biztanleko herria (EUSTAT, 2011) eta bertako eskolako hizkuntzen egoera dira lan honen ardatza. Eskolako euskarazko ahozko adierazpen maila eta erabilera baxua dira esku-hartze proposamenaren diseinuaren arrazoi nagusia. Esan beharra dago, esku-hartze proposamenaren diseinua batez ere, 3. mailako ikasleen euskarazko ahozko adierazpena lantzeko metodo edo lanketa-ildo berrien inguruan duten beharrizanean oinarritzen dela.

Eskolan 174 ikasle dira, publikoa da eta D ereduan irakasten da. Herriari dagokionez, euskaraz mintzatzen direnak gero eta gutxiago dira, eta horrek eragin zuzena du eskolan. Ondorioz, eskolako ikasleen euskararen erabilera orokorrean gero eta baxuagoa da, baita euren burua euskaraz adierazteko erraztasuna ere. Adierazpen guzti hauen oinarriak diren datu objektiboak jarraian datozen ataletan azalduz daude. Egun indarrean dagoen Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan jasotakoaren arabera, eskolan idatzizko adierazpenari behar besteko denbora eskaintzen zaiola uste dute bertako irakasleek, eta hori hala dela ikus daiteke segidan sakonki azalduko dudana Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzetan. Hala ere, elkarrizketatutako irakasleak¹ ahozko adierazpena nahi beste lantzeko betarik eta jarduera berritzailezik ez dagoela azpimarratzen du. Eskolan ahozko adierazpena bigarren atal batean geratu ohi den trebezia da eta bere ustez horren adierazleatariko bat da, esaterako, Ebaluazio Diagnostikoan kontuan ez hartzea. Horrez gain, esan bezala herritarren gehiengoak gaztelaniaz mintzatzen da etxean, beraz, eskolako ikasleen gehiengoak gaztelania jasotzen du etxetik eta ikasleen arteko eskolako euskararen erabilera gero eta makalagoa izateaz gain, erabiltzen duten euskararen kalitatea ere kaltetuz doa.

1.1.1. Herria

Lan honetarako informazio bilketan lortutako EUSTATeko (Euskal Estatistika Erakundea) datu eguneratuenen arabera, 2011. urtean Txorierriko herri honetan 2446 biztanle zeuden eta etxe gehienetan gaztelaniaz hitz egiten zen. Hain zuzen ere, 1343

¹ Elkarrizketaren nondik norakoak 1.1.3. Ikasgela eta irakasleak atalean irakurri daitezke, baita eranskinetako elkarrizketaren transkribapenean ere.

biztanle dira etxean gaztelaniaz aritzen direnak; euskara hutsean berriz, 648 besterik ez; eta 415 dira etxean aipaturiko bi hizkuntzetan mintzatzen direnak.

Honek ez du esan nahi etxean gaztelaniaz mintzatzen direnak euskaraz ez dakitenik, izan ere, EUSTATEk urte berean egindako beste estatistika baten datuen arabera, 1022 biztanlek dute euskara ama-hizkuntzat; 1130ek gaztelania; 253k euskara eta gaztelania. Guztira euskara ama-hizkuntzat duten pertsonen datua, etxean euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aritzen direnen datuekin alderatzen badugu (648 eta 415 hurrenez hurren), argi ikusten da euskaraz jakin arren biztanleak ez direla etxean hala mintzatzen. Ondorioz, seme-alabek ez dute euskara inguru ez formaletan modu naturalean jasotzeko aukera handirik.

1.1.2. Eskola

Eskolan D ereduan eskaintzen dira klaseak, euskara izanik hizkuntza nagusia. Ikastetxean Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektu bat dago abian; Ulibarri Programa hain zuzen ere. 2010ean jarri zuten martxan eta 2014ra arteko epea dauka. Proiektua hasi aurretik klaustroak eskola eremuaren azterketa linguistikoa egin zuen, ikastetxean parte hartzen duten kide guztiak kontuan hartuz. Proiektuko txostenean irakurri daitekeen moduan, eremu instituzionalari dagokionez, eskolako dokumentu guztiak euskaraz idazten dira eta zuzendaritza taldea euskaraz aritzen da. Gainera, irakasle guztiak euskaldunak dira eta euren arteko harremanak beti euskara hutsean egiten dituzte. Guraso euskaldunekin ere, euskaraz aritzen saiatzen dira. Beraz, irakasleriak “euskara bultzatzeko partaide aktibo eta kontzientzia handiko” moduan definitzen du bere burua (Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektua 2010-2014, 2010:3). Eskolan dauden beste langileei dagokienez, autobuseko eta jantokiko zaintzaileak euskaldunak dira eta hala aritzen dira beti. Autobuseko gidaria da gaztelaniaz egiten duen bakarra.

Klaustroak ikastetxearen hurrengo ezaugarri linguistikoak eta hutsuneak zerrendatu zituen (Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektua 2010-2014): eskolak gero eta erdaldunagoak diren ikasleak jasotzen dituela; familia euskaldun guztietan ez dela euskaraz hitz egiten; eskolak bakarrik ezin duela ikasleak euskaldundu; ikasleen arteko komunikazioetan gero eta gaztelania gehiago entzuten da; ikasleek ahozko

komunikazio gaitasuna hobetu eta lantzearen beharra dagoela; eta hezkuntza komunitateak herriarekin indarrak uztartu behar dituela. Dokumentuan gainera, irakasleek, proiektuaren norabidea hizkuntzarekiko motibazioan eta ahozko erabileran zentratu beharko dela ondorioztatzen dute. Izan ere, euskararen hutsunea erabileran eta ahozkotasanaren kalitatean dago.

Bestalde, idatzizko adierazpena eta ulermenari dagokionez, ikasleek orokorrean ez dute arazorik. Hori hala dela ikus daiteke 2009, 2010 eta 2011ko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzetan². Batez ere, ebaluatutako ikasleek familietan erabiltzen dituzten hizkuntzak, hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren batez besteko emaitzak eta 3 dimentsioetan lortutako batz besteko emaitzak (idazmena, irakurmena eta ulermena)³ izan dira azertuak. Emaitzen arabera, 2009, 2010 eta 2011an ebaluatutako ikasleen batz besteko emaitzak erdiko mailan kokatzen dira. Aipatutako hiru urte horietako emaitzak alderatu dira, izan ere, lan honetarako datu bilketa egitean 2012 eta 2013 urteko emaitzak ez zeuden eskuragai. Komunikazio gaitasunari dagokionez, erdi mailak bere adinerako oinarritzko kontzeptuak ulertzen eta aplikatzen jakiteak suposatzen du⁴. Bestalde, idatzizko, entzutezko eta irakurmenezko alderdi zehatzetan erdi mailak ikasleak ahozko zein idatzizko testuen zentzu orokorra ulertzeko gai direla esan nahi du, baina idaztean informazio falta egon ohi dela.

Emaitzak orokorrak diren arren, eskolaren errealitate linguistikoa hobeto ulertzeko lagungarriak dira. Beraz, ondorio gisa esan daiteke, aztertutako hiru ikasgeletako ikasleek familietan euskaraz ez aritu arren, ez dutela ebaluatutako hizkuntzaren alderdiekiko zailtasun nabarmenik. Hau da, etxean gaztelaniaz edo atzerriko beste hizkuntza batean aritzeak ez duela idatzizko adierazpenean eragin negatibo nabarmenik eragiten.

1.1.3. Ikasgela eta irakasleak

² Ebaluazio Diagnostikoa Eusko Jaurlaritzak urtero diru publiko finantzatutako ikastetxeetan egiten duen barne frogara da. Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek egiten dute eta idatzizko azterketa batean oinarritzen da. Helburua idazmena, ulermena eta entzumenaren dimentsioak, eta euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea da, besteak beste.

³ Ikasleen datuak, emaitzen jatorrizko grafikoak eta grafikoaren interpretazioaren laburpen taula II. eranskinean daude ikusgai, baita emaitzak sailkatzeko ageri diren hiru mailen ezaugarrien deskribapena ere.

⁴ Ikusi II. Eranskina.

Eskolako ikasleen hizkuntza trebetasunen egoera aztertu ondoren, informazioaren bilketa ikasgela zehatz batean zentratu da. Modu honetan, lagin txikiago bat izanik, errazago eta zehatzago aztertu daiteke euskararen erabilera eta ikasleen ahozko erabileraren ezaugarriak. Zeregin horretarako, tutorearentzako galdetegi bat prestatu eta ahoz elkarrizketatua izan da⁵. Eskolako ikasleek euskararen erabilera urriaz aritzeaz gain, ikasgelako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek euskaraz ahoz adierazteko dituzten zailtasunez mintzatzen da tutorea.

Laburbilduz, hurrengo hauek izango lirateke 3. mailako tutoreari bere ikasgelaren inguruan egindako elkarrizketatik ateratako ideia nagusienak: ikasleen euskarazko ahozko adierazpena bere mailarako izan behar lukeena baino baxuagoa da, baita eskolako beste ikasleena baino baxuagoa ere; ikasleen euskarazko ahozko adierazpenaren maila gaztelaniaz dutena baino baxuagoa da eta gehiago landu beharko litzateke; euskarazko ahozko adierazpena lantzeko baliabide material eta denbora falta dago; ahozko adierazpenaren garapena ebaluatzea zaila da; ikasleak ikasgelako harremanetan euren artean gaztelaniaz mintzatzen dira eta irakaslearekin soilik euskaraz; eta eskolan, orokorrean, ikasleen arteko euskararen erabileraren egoerak normalkuntza proiektuaren beharra du.

1.2. Ahozko Adierazpena eta Ikaskuntza Tailerrak

Hizkuntzen irakaskuntza eta ikerketaren historiako aldi desberdinetan, ikuspegi eta metodo ezberdinak garatuz joan dira eta ahozko komunikazioak ez du beti hizkuntzalarien ustetan toki bera izan. Adierazpen hauek J.C. Richards eta T.S. Rodgers (2003) hizkuntzalariak ikuspegi eta metodoen inguruan egindako lanean dute oinarria. XX. mende ingurutik (baita lehenagotik ere) ahozko adierazpenaren lanketa aintzat hartua izan da hizkuntzak irakasterako orduan; hizkuntzalari eta irakasleek ahozko komunikazioaren alderdia modu anitzetan izan dute kontuan garai eta aldi ezberdinetan zehar⁶.

Esku-hartze proposamen hau diseinatzeko, eta arestian aurkeztutako eskolako ezaugarri eta beharrianak kontuan hartuta, ikaskuntza tailerrak aukeratu dira ahozko

⁵ Elkarrizketa horren berri I. Eranskinean ematen da.

⁶ III. Eranskinean historian zehar ahozkotutasunaren lanketari garrantzia eman dioten ikuspegi eta metodoen laburpen taula irakurri daiteke, J.C. Richards eta T.S. Rodgers-en liburuan oinarriturikoa.

adierazpena jorratzeko ardatz edo ildo nagusi gisa. A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz-ek (2006) ikaskuntza tailerrak era praktikoan ikasteko modu gisa definitzen dituzte; “Es una forma de enseñar y aprender mediante la realización de algo. Se aprende lo vivencial y no desde la transmisión. Predomina el aprendizaje sobre la enseñanza” (A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz-ek, 2006: 5). Gainera, tailerrak diziplinartekotasuna lantzeko aukera ematen dutela azpimarratzen dute. Ikaskuntza tailerrak arlo ezberdinak lantzeko metodologia baliagarria dira, baita arlo ezberdin horiek elkarrekin lantzeko ere. Ahozko adierazpena edozein edukiren bitartez landu daiteke, hala ere, ikasgelan komunikaziorako beharra eta interakziorako giro egokia sortu behar da:

Los alumnos y alumnas deben aprender a narrar, a describir, a explicar, a justificar y a argumentar (...) debemos crear en el aula contextos en los que, además de tener la necesidad de utilizarlas (asamblea, explosions, etc.), puedan reflexionar sobre las características que presentan. (Palou, J., 2005:9)

Kasu zehatz honetan ikaskuntza tailerrak euskarazko ahozko adierazpena lantzeko aplikatu nahi dira. Jarraian M. Filliat eta M. A. Silva autoreek (1997) Bartzelonako Lehen Hezkuntzako zentro batean katalana lantzeko erabili zituzten zenbait tailerren adibideak irakurri daitezke. Liburutegiaren tailerren bidez, esaterako, irakurmena eta idatzizko ulermena lantzen da. Horrez gain, irakurzaletasuna bultzatzen da eta ipuinen elementu ezberdinei buruz ikasten da. Lehen Hezkuntzako edozein mailatarako baliagarria da. Ikasle bakoitzak ikasgelako edozein liburua aukeratzen du, eta hau irakurri ondoren, klasean dagoen taula batean kolore ezberdinetako pegatinen bidez gustuko izan duen edo ez baloratzen du. Azkenik, liburuari buruzko fitxa bat betetzen du. Mailaren arabera, fitxa hau liburuaren elementu ezberdin baten ingurukoa izango da: pertsonaiak, ipuinaren egitura, beste amaiera bat asmatzea, ipuinaren komikia irudikatzea etab. Azken fitxa hau izango da irakasleak ebaluatzeko erabiliko duena.

Ahokotasuna ardatz duen M. Filliat eta M. A. Silva autoreek (1997) azaldutako beste tailer bat txotxongiloekin egindako antzerkia da, baina kasu honetan elkarrizketen bitartez jorratzen da. 2. zikloko ikasleekin egiteko dago zuzendua eta ikasleen sormen gaitasuna bereziki lantzeko aproposa dela diote autoreek. Ikastaldea talde txikiagoetan antolatzen da eta bakoitzak bere obra sortzen du; euren kabuz entseatzeko dute eta

ikaskideen aurrean eskuetan txotxongiloak erabiliz antzeztu. Irakasleak prozesu osoan egindako behaketa lanaren bitartez ebaluatuko du tailerra.

N. Ávilak ere (2009), Madrileko ospitale batean 11-18 urte bitarteko gazteekin egindako tailerren berri ematen du. Gazteak batz bestea 15 egun ematen dute psikiatria unitatean ospitaleratuak, askotan banaka eta familiarekin kontakturik izan gabe. Hori dela eta, egoera honetan tailerren bidez komunikazioa eta adierazpena lantzea guztiz beharrezkoa da. Tailerrak artearen bidezko adierazpenean oinarritzen dira eta gazteak ospitalean daudenez gero, euren kanpoko egunerokotasunarekin lotura dituzten elementuak jorratzen dituzte tailerretan: graffitiak, tatuajeak, arropa etab. Burututako saioetariko batean, esaterako, tailerrei hasiera emateko gazteek arteaz zekitenari buruz aritu ziren. Ondoren, artista baten obra ikusi zuten eta eurek ere antzeko zerbait egin zuten, arte garaikidearen obra bat imitatuz. Tailer bakoitzaren amaieran, gazteei tailerra baloratzeko eskatzen zaie eta izan ditzaketen zalantzak galdetzeko tartea ere zabaltzen dute.

1.3. Tailerren nondik norako nagusienak

1.3.1. Ezaugarriak eta egitura

Arestian aipatutako M. Filliat eta M. A. Silva Bartzelonako Lehen Hezkuntzako irakasleek (1997), tailerren hurrengo ezaugarriak definitzen dituzte: ikasgela txokoetan antolatzen da; txoko bakoitzean material desberdinak modu anitzetan antolatzen dira; espazio eta denbora berean bakarkako zein taldekako ariketa ezberdinak landu daitezke aldi berean; ikasleak autonomiaz aritzen dira, ikasketa euren kabuz eraikiz; irakasle zein ikaskideei laguntza eskatzeko aukera dago; irakasleak ikasleak behatzeko aukera zabalagoa du; jolasean ikasteko modu paregabea dira. Tailerren bidez, ikasleek euren kabuz eta euren artean ikasten dute, elkarren arteko komunikazioa ikaskuntza prozesuaren ezinbesteko tresna izanik. Ikasleei modu autonomoan lan egiteko aukera eskaintzean ahozko interakzioa bermatzen da; hori dela eta, tailerrak lan honetan aurkeztutako eskakizun errealari erantzuna emateko proposamen egokia izan daitezkeela uste da.

Bestalde, Gibb-ek (1996) kontuan hartzeko honako alderdi hauek zerrendatu zituen tailerrak diseinatzerako orduan: giro fisiko egokia sortu behar da, taldeak

antolatzerakoan tentsio pertsonalak izan ditzaketen konbinazioak saihestu, prozeduren inguruko argibide garbiak eman eta talde barneko arauak ezartzeko erraztasunak eman, talde bakoitzak barneko erabakiak hartzeko askatasuna eman, eta tailerra aurrera eramateko oinarritzko trebetasunen irakaspena.

Tailerrak diseinatzerako orduan, gainera, eta A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz (2006) autoreek egitura zehatza edo pausu batzuk jarraitzea gomendatzen dute: tailerren aurkezpena (ikasleei zer eta nola landuko den azaltzea), taldeen antolaketa (ikasgelaren eta tailerraren ezaugarrien araberakoa), taldeetan lan egitea, emaitzak komunean jartzea eta irakaslearen laburpen orokorra. Azken bi faseak tailerrak burutu ondoren egin beharrekoak dira. Batetik, talde bakoitzeko bozeramaile batek tailerren inguruko iritzia plazaratuz, eta bestetik, irakasleak landu nahi izan diren ideien sintesia eginez.

1.3.2. Ekarpinak

M. Filliat eta M. A. Silva autoreek (1997) positiboki baloratzen dituzte Bartzelonako Lehen Hezkuntzako zentro batean katalana lantzeko erabili zituzten tailer ezberdinen esperientziak; bai ikasgela antolatzeko moduagatik, baita lan egiteko metodologiarengatik ere. Tailerren esperientziak euren ustetan egindako ekarpena lau puntutan laburbiltzen dute (M. Filliat eta M. A. Silva, 1997:53): bakarkako zein taldeko lanaren uztarketa; lan autonomia, ikaskideen edota irakaslearen laguntzarekin beharrezkoa denean; lan erritmo desberdinen uztarketa; edukiak eta jarrerak aldi berean lantzea. N. Ávila autoreak (2009) ere ondorio positiboak biltzen ditu gazteekin ospitalean egindako tailerren inguruan. Egoera psikiatriko berezia bizi duten gazteak dira eta egun asko ematen dituzte ospitaletik irten gabe, sarritan familia eta lagunak ikusi ezinik. Gazteen parte hartzea orokorrean aktibo eta motibagarri moduan definitzen du autoreak, izan ere, tailerren bidez euren burua komunikatzeaz gain, elkarrekin komunikatzen dira eta artearen inguruan ikasten dute; eta are gehiago, une batez ospitaletik irten ezinik daudela ahazten dute.

1.4. Sintesia

Aurreko informazio guztia kontuan hartuz, ahozketasunaren irakaskuntzak eta lanketak berebiziko garrantzia duela argi geratu da; bai historian zehar bizitako

garapenarengatik, baita gure hezkuntza sistemako eskola bateko errealitateak hala eskatzen duelako ere. Izan ere, aztergai moduan hartutako herria eta bertako eskola, euskararen komunikazioa sustatzeko eta hobetzeko beharrea daude. Herriko familiak, euskaraz jakin arren, gero eta gutxiago erabiltzen dute etxeko komunikazioan eta egunerokotasunean. Ondorioz, familia horietako haurrek eskolan ez dute hizkuntza naturaltasunez erabiltzen. Hezkuntzarako hizkuntza moduan ikusten dute, ikasteko erabiltzen dena eta ez komunikatzeko tresna gisa balio duena. Beraz, jarraian datorren esku-hartze proposamena aztertutako eskolako hizkuntza egoeraren beharrei erantzuna emateko diseinaturik dago; ahozko komunikazioa modu natural batean erabiltzeko alegia. Horretarako, ikaskuntza tailerrak hartuko dira oinarri metodologiko gisa. Helburu nagusia euskararen ahozko adierazpena eta honen erabilera naturala sustatzea bada ere, beste hainbat aspektu lantzea ere du helburu: harremanak, lan autonomia, arazoen kudeaketa, emozio eta ideien adierazpena, edota sormena.

2. Esku-hartze enpiriko baten proposamena: ahozko lantzeko tailerrak.

Hurrengo atalean deskribatutako eskolako ezaugarri eta beharizan zehatzetarako diseinatutako esku-hartze enpiriko baten proposamena aurkezten da. Helburu nagusia Lehen Hezkuntzako ikasgela baten euskarazko ahozko komunikazioaren maila eta erabilera indartzea. Eskola euskarazko ahozko erabilera sustatu eta hobetzeko beharizanaren jabe da, baita hau lantzeko proiektu edo proposamen berrien beharizanaren jabe ere⁷. Hori dela eta, bertako egoeraren berri ematearekin batera, ahozkoa lantzeko esku-hartze proposamen berri baten erronkaren ideia sortu zen. Irakasleak baita zuzendaritza taldeak ere, esker onez jasoko luke eskolako euskararen erabilera indartuko lukeen edozein diseinu.

Ikasleen ahozko interakzioa ahalik eta modu natural eta erakargarrienean lantzeko ikaskuntza tailerrak hautatu dira metodologia gisa. Jolas moduan planteatutako tailerrak dira, eta umeak ahalik eta modu autonomoenean jarduteko diseinaturik daude. Horretarako, ikasleak talde txikietan antolatuko dira⁸ eta aldi berean txoko ezberdinetan arituko dira solasean. Txoko bakoitzean jolas ezberdinak proposatuko zaizkie eta txokorik txoko ibiliko dira tailerrek aurrera egin ahala. Tailerren arteko

⁷ 2.1.2 eta 2.1.3 ataletan azaltzen den moduan.

⁸ Taldeen antolaketara Berdinen Arteko Tutoretzan oinarrituko da. Ikusi 3.2. atala.

lotura gisa piraten gaia aukeratu da. Udane, Lupita eta Xabier piraten ipuinaren bidez aurkeztuko dira tailerrak, eta ikasleek istorioa irakurri ahala, taldean egiteko jolas eta erronka ezberdinekin egingo dute topo. Errealitatea fantasia ukitu batekin nahastea erabaki da ikasleentzako entretenigarriagoa izateko, baita euren arreta deitzeko ere.

2.1. Gaitasunak eta helburuak

Arestian esan bezala esku-hartze proposamenaren helburu nagusia tailer ezberdinen bidez ikasleen euskarazko ahozotasuna lantzea bada ere, horren harira ikasleen arteko elkarlana, autonomia edota euskararekiko zaletasuna bezalako hainbat alderdi ere landu nahi dira. Azken batean, modu ludiko eta adierazgarrian, ikasleek ikaste-prozesuan zehar lortu behar dituzten oinarrizko gaitasunei ekarpena egin nahi da⁹. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Curriculum ofizialak honela definitzen du oinarrizko gaitasuna (Eusko Jaurlaritza, 2010: 65):

Jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko.

Eranskinetan zehaztutako oinarrizko gaitasunei ekarpena egiteko, tailerren bidez eskuratu beharreko honako helburu zehatzak definitzen dira:

- Ahozko adierazpena modu naturalean lantzea, jolasen bidez euskaraz hitz eginez, mintzamena hobetzeko. (1., 2. eta 3. gaitasunei ekarpena)
- Ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza erabiltzeko egoera naturala sortuz, hizkuntzarekiko begirunea eta interesa berpizteko. (2. eta 3. gaitasunei ekarpena)
- Ikasleak talde lanean autonomoki jardutea, euren kabuz arazoei aurre eginez, giro euskaldunean elkarri laguntza eskaintzeko eta elkarrengandik ikasteko. (1., 2., 3. eta 4. gaitasunei ekarpena)

Proposaturiko hiru helburu hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Curriculum ofizialak Lehen Hezkuntzako etaparako Euskara eta Literatura arloan definitzen dituen

⁹ Hezkuntza Curriculumak hauen inguruan dionaren deskribapen laburra eta tailerren bidez aberastu nahi diren oinarrizko gaitasunen zehaztapenak IV. eranskinean irakurri daitezke.

helburu orokorretan oinarritzen dira¹⁰. Atal honen laburpen gisa, aipatu beharra dago, tailerren bidez ez dela hizkuntzaren zuzentasuna bilatzen. Ikasleak euren artean euskaraz hitz egitearekin nahikoa litzateke; jolasak burutzeko ideiak eta zalantzak euskaraz partekatzea eta adostea. Azken batean herrian eta eskolan euskararen erabilera ez da bereziki handia¹¹, egoera hobetzeko lan handia dago egiteko eta tailer hauek ahozko euskara hobetu eta sustatzeko bidearen pausu txiki bat besterik ez lirateke izango.

2.2. Taldekatzeak: berdinen arteko tutoretza eta txokoak

Aipatu bezala, esku-hartze proposamena diseinatzeko aztertutako eskolako 3. mailako ikastaldearen ezaugarriak eta beharrianak hartuko dira hizpide, eta hauei erantzun egokia emateko bi metodologiaren ideiak eta ezaugarriak uztartu dira. Batetik, arestian azaldutako ikaskuntza tailerren metodologia, bestetik berriz, berdinen arteko tutoretza. Azken hau, ikasleen taldekatzeak zehazteko metodo lagungarri gisa erabili nahi da. Metodologia bi hauek aplikatzea baliagarria izan daitekeela uste da, izan ere, berdinen arteko tutoretzen bidez etxean euskaraz egiten duten ikasleek besteei positiboki eragin diezaiekete. Aurretiazko prestakuntzarik gabe, tutore moduan jardun dezakete euskara jatorra eta hurbilaren inputa eskainiz, eta input hori tailerretan antolaturiko jolasen aitzakiarekin modu naturalean sortzea espero da. Jarraian berdinen arteko tutoretza zertan datzan zehazten da.

David Duran-ek honela definitzen ditu berdinen arteko tutoretzak: “se entiende la tutoría como parejas de personas (alumnos, familiares o profesores) que aprenden a partir de una interacción estructurada” (Duran, 2006: 7). Duran-en ustetan pertsonen ezaugarri komunak tutoretzen abiapuntu bihurtu behar dira, berdinen arteko harremanak ikasteko aukera bihurtuz. Azken batean, berdinen arteko tutoretzak ikasteko metodo kooperatiboan du jatorria. Artikuluan zehar, gainera, Duran-ek hurrengo dio: “los alumnos pueden actuar como mediadores... actuar como maestros de sus compañeros. A su vez, el proceso de ayuda puede generar oportunidades de aprendizaje para él...” (Duran, 2006: 7). Tutoretzen funtsa, hortaz, jorratzen ari den

¹⁰ Curriculumak Lehen Hezkuntzarako definitzen dituen eta ahozko adierazpenarekin lotura duten helburuak V. eranskinean irakurri daitezke.

¹¹ 2.1. atalean azaltzen den moduan.

gaian erraztasuna duten ikasleak zailtasunak dituztenekin edo gaiaz gutxiago dakitenekin taldekatzean datza. Praktika hauen bidez elkartasun eta sozializatzeko baloreak garatzen dira, hala ere, Duran-ek kontuan izan beharreko zerbait azpimarratzen du; izan ere, ikasle laguntzaileek euren ikasketa-prozesuaren jabe ez izatea gerta daiteke.

Tutoretza mota desberdinen bidezko emaitza positibo ugari lortu dira. Eskozian, esaterako, berdinen arteko tutoretzetan oinarritutako "Read on" programa garatu dute. Modu honetan, irakurtzen ikasten dabilzan ikasleek, ikasle nagusiagoekin batera irakurtzen dute eta irakurritakoaren gainean hitz egin. Helburuak, irakurzaletasuna bultzatzea, autoestima eta ziurtasuna garatzea, eta sozializazio gaitasunak jorratzea dira (Blanch eta Duran, 2006). Tutoretzaren bidezko emaitza positiboen beste adibide bat, Cadiz-eko Fernando Quiñones Bigarren Hezkuntzako Institutukoa da DBH-ko lehen zikloko ikasleak ikasketa erritmo, gaitasun eta harreman sozialen arabera taldekatu zituzten literatur generoak beste metodologia baten bidez lantzeko. "Ha sido muy gratificante oírles contar a unos que se habían dado cuenta de la difícil tarea que era ser maestro y a otros que con las palabras del compañero entendían mejor los conceptos" (N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara, 2006:26). Hala ere, hobetu beharreko edo kontuan hartu beharreko hiru ideia azpimarratzen dituzte artikuluaaren autoreek: ez da komenigarria tutoretzak saio askotan zehar edo kurtso osoan zehar luzatzea, eraginkorrakoak dira noizean behin landuz gero; bikoteen edo taldeen aukeraketa ondo egitea ezinbestekoa da; eta ez zaie bakarrik emaitzei erreparatu behar, prozesu osoa behatu behar dute irakasleek.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, tailerrak aurrera eramateko ikasleak berdinen arteko tutoretzetan oinarriturik taldekatzeko proposamena luzatzen da. Esan bezala, tailerrak ikasgela berean antolatuko diren txoko ezberdinetan burutuko dira eta ikasleak talde txikietan antolaturik egongo dira. Duranek (Duran, 2006) tutoretzak bikoteetan lan egiteko metodo gisa definitzen dituela ikusi da, hala ere, Cadiz-eko institutuko adibidean autoreek dioten moduan (N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara, 2006), taldekatzeak bikoteetan zein taldeetan egin daitezke. Ez dira berdinen arteko tutoretzen funtsa diren bikoteen taldekatzea jarraituko, jolasak aurrera eramateko bi taldekide baino gehiagoren arteko interakzioa behar delako. Taldeen

antolaketa irakaslearen esku egongo da eta ezinbestekoa izango da hurrengo bi irizpideak kontuan hartzea: talde bakoitzean etxean euskaraz hitz egiten duen kide bat egotea (edo euskaraz komunikatzeko arazorik ez duen ikaslea) eta kideen arteko aurretiazko harremana ona izatea. Behin taldeak definiturik, bakoitza txoko ezberdin batean arituko da lanean; aldi berean jarduera ezberdinak jorratuz. Tailerrak guztira lau txokotan banatuta egongo dira, gune bakoitzean egin beharreko ekintzak desberdinak izanik.

Ikasgelan, beraz, lau toki desberdin eta elkarrengandik argi bereizirik finkatuko dira jolasak egiteko. Txoko bakoitzak izen bat izango du eta beti tailer bera jorratuko da horietariko bakoitzean. Ikasle talde bakoitzak saio bateko iraupena izango du txoko bakoitzean proposaturiko tailerra egiteko, eta saioek aurrera egin ahala talde bakoitza txokoa aldatuz joango da.¹² Diseinu hau 12 pertsonako talde batean oinarritzen da, beraz, 3 pertsonako 4 talde osatuko dira, talde bana txoko bakoitzerako. Etorkizunean esku-hartze proposamen hau kopuru ezberdineko beste talde batekin martxan jarri nahi izanez gero, taldekatzerako hemen proposaturiko kopuruak moldatu daitezke¹³.

2.3. Baliabidea: jolasak

Tailerren ezaugarrietan aipatu bezala, hauei esker ikasleak jolasean dauden bitartean ikasteko aukera izango dute (M. Filliat eta M. A. Silva, 1997), beraz, jolasak eta hauen bidez sortzen den ikaskuntzak berebiziko garrantzia dute esku-hartze proposamenean. Jolasen bidez, gainera, hizkuntza erabiltzeko behar ukaezina sortzen da ikasleen arten: “Los alumnos tienen que interactuar con el problema que se ha propuesto. Se encuentran ante la necesidad de usar la lengua para resolver lo que se plantea como un juego.” (J. Palou, 2005: 8)

Jolas-jarduerak historian zehar hezkuntzarekin izan duten loturari erreparatuz gero, ikuspegi eta iritzi desberdinak daudela ikus daiteke. IX. mendean, esaterako, Pestalozzi, Montessory, Decroly edo Piaget bezalako autore eta pedagogoen jolasak umeen sormena eta garapen intelektualerako lagungarriak direla defendatzen zuten. Hala ere, eta Industria Iraultzaren ideologiarekin lotuta, aurreko ideia honekin bat ez zetozen

¹² Ikusi 3.4. ataleko kronograma.

¹³ Moldaketa hauek jatorrizko esku-hartze proposamenarekin aurkeztutako materialetan aldaketak egin beharra suposatu dezake.

pentamoldeak ere bazauden. Azken hauen arabera, lantegietako langileen antzera, umeez eskolan ahalik eta gehien ikasi behar dute, denbora hori ahalik eta produktiboen izan dadin; eta ikasgelatik kanpo gelditzen dira aisialdi eta ondo pasatzearekin loturiko jarduera ludikoak. (Y. Tornero, 2009)

Hitz gutxitan esanda, jolas-jarduerak ez dira beti ikasleen ikaskuntza prozesua osatzeko tresna baliagarri gisa ikusi. Hala ere, beste autore batzuek jolasen erabilera ikasleentzako onuragarria izan daitekeela defendatu izan dute eta ideia hau da hain zuzen ere esku-hartze proposamen honen oinarrietariko bat. Y. Tornero (2009) autoreak, esaterako, honako alderdi positiboak azpimarratzen ditu: gelan ikasleen arteko giro ona sortzen da, harreman interpersonalak eta taldekoak erraztu egiten dira, jolasek garapen kognitiboa garatzen laguntzen dute, sormena eta ikasketa esanguratsua eragiteko aproposak dira, motibagarriak dira, hizkuntzen erabilera eragiten dute, ikasleen parte hartzea sustatzen dute eta ikasitakoaren inguruan hausnartzeko aukera ematen dute besteak beste. Hala ere, kontuan hartu behar dira jolasen erabilerak izan ditzaketen alderdi negatiboak. Adibidez, komunikazio gaitasunaren erabilera eskatzen duten jolasetan ikasle lotsatiek parte hartzeko arazoak izan ditzakete (Y. Tornero, 2009).

2.4. Kronograma

Esku-hartze proposamena guztira 5 saiotan burutzeko diseinaturik dago¹⁴. Tailerrak 4 saioetan zehar landuko dira, saio bakoitzaren iraupena 60 minutukoa izanik. Lehen saioan, salbuespen gisa, 60 minutu horiez gain hasieran beste denbora tarte bat beharko da ikasleei metodologia azaltzeko. Azkenik, 5. saioa ebaluaziorako erabiliko da. Esku-hartze proposamena hilabete eta aste betean burutzeko diseinaturik dago, astero saio bakarra eginez. Honek N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara (2006) autoreek berdinen arteko tutoretzen aplikazioaz esandakoan du oinarria, izan ere, ez da komenigarria taldeko lan autonomia eskatzen duten metodologiak saio askotan zehar luzatzea eta eraginkorragoak dira noizean behin landuz gero.

2.5. Egitura

¹⁴ Ikusi kronogramaren koadroa VI. eranskinean.

Piraten gaia izango da tailerren oinarria. Txoko bakoitzean proposaturiko jolasak itsaslapurren munduarekin izango dute lotura, fantasiaren bidez ikasleen arreta eta motibazioa pizteko (Y. Tornero, 2009). Esku-hartze proposamen hau inoiz egin gabekoa dela azpimarratu nahi da. Tailerren diseinu zein antolaketa osoa guztiz berria da, baita ikasleen gidan bertan ageri den hiru pirata protagonisten irudia¹⁵ ere.

Ikasleak talde txikietan bilduta era autonomoan arituko dira jolasean, talde bakoitzak gunee batean tailer ezberdina burutuz. Horretarako, gida¹⁶ bat egongo da txoko bakoitzerako eta ikasleek bertatik irakurriko dituzte jolasen inguruko azalpenak eta arauak. Hala ere, gidan ez da jolasen azalpen hutsa agertuko eta tailerrei lotura sendoagoa emateko asmoz, piraten ipuin edo istorio txiki baten bidez aurkeztuko dira jolasak. Suerta daitezkeen zalantza edo kezka irakaslearekin argitzeko, txoko bakoitzerako taldeko kide bat izango da bozeramailea edo kapitaina, eta berak bakarrik hitz egin ahal izango du irakaslearekin.

Irakasleak tailerrak burutzeko ikasgelan 4 txoko bereiziko ditu. Txoko bakoitzean jolas ezberdinak egingo dira, beraz, gunee bakoitzean ikasleek beharko duten materiala ere aurretiaz prestatuko du. Jolasak egiteko beharrezko material guztia altxor itxurako kaxan bilduta egongo da¹⁷. Beharbada baliabideren bat eskolak jarri beharko du (arkatzak, paper zuriak edo fotokopiak) eta hala den kasuan ondo adierazita egongo da. Hala eta guztiz ere, material gehiena erabiltzeko prest egongo da: txoko bakoitzerako ikasleentzako gidak, irakaslearentzako gida, jolasetan erabiltzeko bestelako baliabideak (ikasleen komunikazioa sortzeko aitzakia moduan erabiliko diren objektu edo materialak), eta txoko bakoitzaren eremua adierazteko kartelak¹⁸. Tailerrak, beraz, abian jartzeko moduan egongo dira. Hala ere, ikasgelan hezkuntza premia bereziak dituen ikaslea egonez gero, jolasak moldatu egin beharko lirateke¹⁹.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hona hemen esku-hartze proposamenari ekiteko irakasleak jarraitu beharreko egitura; A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz (2006) autoreek tailerrentzako zehaztutako faseetan oinarrituz:

¹⁵ Laura Picallok (2014) eskuz egina da.

¹⁶ VII. Eranskinean ikasleentzako gida irakurri daiteke.

¹⁷ Kutxa eskuz egina dago.

¹⁸ Jolasetan erabiltzeko materialen ereduak eta kartelen ereduak XII. Eranskinean ikusgai. Material guzti hauek altxorraren kutxatik ondo antolaturik eta erabiltzeko prest eskuratu ahal izango dira.

¹⁹ Ikusi XIII. Eranskina.

1. FASEA: Tailerren funtzionamenduaren azalpena:

- Txokoak eta gida aurkeztea (bakoitzak zein leku hartzen duen baina egin beharrekoa azaldu gabe, hori ikasleek irakurriko dute gero euren gidatik).
- Taldeak osatzea²⁰ (ikasle bakoitzari norekin lan egingo duen esan).
- Taldean lanean aritzeko elkarbizitza arauak denon artean finkatzea (Y. Tornero, 2009).
- Kapitaina edo bozeramailearen papera azaltzea. Ikasleek txoko bakoitzean momentuan erabakiko dute nor izango den bozeramailea. Taldekide bakoitzak gutxienez behin izan beharko du kapitaina.

2. FASEA: Tailerren burutzea.

Bigarren fase hau 4 saioetan zehar emango da, ikasleak txokoetan lanean diharduten denbora hemen ematen delako. Fase honek barne hartzen dituen saioen hasieran, eta behin ikasleak txokoetan kokaturik daudela, taldeka lanean hasi aurretik girotzeko eta euskal kulturara hurbiltzeko euskarazko abesti bat entzungo dute²¹. Euskara eskolan erabiltzeko hizkuntza baino gehiago den mezua helarazi nahi da; euskaraz bizi daitekeela eta aisialdirako ere euskarazko musika erakargarria badagoela alegia. Tailerren burutzearen eskema hurrengoa litzateke:

- Irakasleak ikasgelan txoko edo gune ezberdinak bereizi eta materiala prestatuko du.
- Behin ikasleak txokoetan kokaturik, jolasean hasi aurretik euskarazko abesti bat entzungo dute (irakasleak nahi duena).
- Ondoren, tailerrekin hasteko unea izango da. Ikasleen gidan datorren arren, hasi aurretik bozeramailea finkatu behar dutela birgogoratuko du irakasleak. Irakaslearekin honek bakarrik hitz egin ahal izango du.
- Jarraian, ikasleek txoko bakoitzerako proposatutako jolasak burutuko dituzte euren kabuz. 55 minutuak igarotzean irakasleak batzeko ordua dela esango die.

²⁰ Ikusi 3.2. atalean ikasleak taldekatzeko azaldutako proposamena.

²¹ Abestien diskoa gainontzeko materialarekin batera altxor kutxaren barruan egongo da. Ikasleek gidaren amaieran dituzte abestien letrak hauek jarraitu nahi izanez gero.

Bukatzeko, hurrengo hauek dira 4 txokoetan banaturik proposatzen diren tailerrak. Jarraian, bakoitzari buruzko zehaztasunak irakurri daitezke, hala ere, jolasen azalpena ikasleen gidan azalduz dago²²:

1.TXOKOA: Txoko Gorria → BERMEOKO PORTUA
Lekua: ikasgela, gunere berezi bat.
Denboraren egituraketa: <ul style="list-style-type: none"> • Abestia entzun: 5 min • Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min • “Uharte bakartia” jolasa: 20 min • “Zenbat dakizkizue?” jolasa: 15min • “Istorio asmatzaileak” jolasa: 10 min • Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
Baliabide materialak: <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: uharte bakartiaren irudiaren ereduak, ikasleentzako gida eta musika diskoa. - Eskolatik: arkatzak, borragoma, folio zuria eta uharte bakartiaren irudiaren fotokopiak (talde bakoitzeko bana)²³. Horrez gain, hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
Helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Hiztegi aurrezagutzak aktibatzea, hitz zerrendak eginez eta ipuinak asmatuz, elkarrengandik ikasteko.

1. Taula: txoko gorria antolatzeako irakasleentzako informazioa.

2.TXOKOA: Txoko Urdina → ZUMAIAKO PORTUA
Lekua: ikasgela, gunere berezi bat.
Denboraren egituraketa: <ul style="list-style-type: none"> • Abestia entzun: 5 min • Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min • “Zer naiz?” jolasa: 30 min • “Hitz ezkutuak” jolasa: 15 min • Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
Baliabide materialak: <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, “Zer naiz?” jolaserako kutxa (barruan deskribatu

²² Ikasleentzako gida VII. Eranskinean dago ikusgai.

²³ Bermeoko portuan erabiltzeko “uharte bakartiaren irudia” XII. Eranskinean ikusgai, tailerren bestelako materialekin batera.

<p>beharreko irudiak eta irudia kopetan jartzeko bururako goma), “Hitz ezkutua” jolaserako gutun-azala (barruan deskribatu beharreko irudiak) eta musika diskoa.</p> <p>- Eskolatik: hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.</p>
<p>Helburuak:</p> <p>- Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko.</p> <p>- Hizkuntzaren bat-batekotasuna lantzea, deskribapenak eginez, ahozko estrategia ezberdinak garatzeko.</p>

2. *taula: txoko urdina antolatzeko irakaslearentzako informazioa.*

<p>3. TXOKOA: Txoko Berdea → HENDAI AKO PORTUA</p>
<p>Lekua: ikasgela, gune berezi bat.</p>
<p>Denboraren egituraketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Abestia entzun: 5 min • Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min • “Esadazu bidea” jolasa: 20 min • “Piratentzako menua” jolasa: 10 minutu • “Ni margolari” jolasa: 15 min • Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
<p>Baliabide materialak:</p> <p>- Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, begiak estaltzeko zapia, “Ni margolari” gutun-azala (barruan marraztu beharreko objektuen izenen txartelak) eta musika diskoa.</p> <p>- Eskolatik: arkatza, borragoma, folio zuriak. Horrez gain, hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.</p>
<p>Helburuak:</p> <p>- Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko.</p> <p>- Elkarri argibideak ematea eta komunean gauzak adostea, hizkuntzaren bat-batekotasunaren bidez, euskara modu naturalean erabiltzeko.</p>

3. *taula: txoko berdea antolatzeko irakaslearentzako informazioa.*

<p>4. TXOKOA: Txoko Morea → BIARRITZEKO PORTUA</p>
<p>Lekua: ikasgela, gune berezi bat.</p>
<p>Denboraren egituraketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Abestia entzun: 5 min • Gidako argibideak irakurri, eguneko bozeramailea zehaztu: 10 min • “Botilako mezua” jolasa: 15 min • “Hitz eroak” jolasa: 15 min • “Pirataren loroa”: 15 min

<ul style="list-style-type: none"> • Erabilitako materiala batu denon artean: 5 min
<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Piraten kutxatik: ikasleentzako gida, “Botilako mezua” botila (barruan egoera hipotetikoan zerrenda), “Hitz eroak” gutun azala (barruan hitzak eta hauen definizioen txartelak) eta musika diskoa. - Eskolatik: hasierako abestia entzuteko disko irakurgailua eta bozgorailuak.
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskaraz komunikatzea eta jolasetan autonomoki aritzea, euren kabuz jolasak aurrera eramanez, ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko. - Irudimena eta hiztegia lantzea, istorio zein hitz-kateei jarraipena emanez, ahozko hizkuntzaren erabilera ez-kontzientea jorratzeko.

4. *taula: txoko morea antolatzeako irakaslearentzako informazioa.*

3. FASEA: Ikasleen auto-ebaluazioa.

Bosgarren eta azken saioan, ikasle bakoitzari auto-ebaluaziorako denbora emango zaio. Irakasleak aurretiaz fotokopiatutako auto-ebaluazio fitxako galderak²⁴ idatziz erantzun beharko dituzte. Ondoren, idatzitakoa talde handian komunean jarriko dute eta ikasle bakoitzak gutxienez galdera bati erantzun beharko dio. Ebaluazio fitxatik kanpo dauden iritziak eta gogoetak ere ongi etorriak izango dira. Modu honetan ere, irakasleak komunikatzeko gaitasunari erreparatu ahal izango dio. Irakasleak kudeatuko ditu hitz egiteko txandak.

4. FASEA: Irakaslearen balorazio orokorra eta tailerrekin ikasleei helarazi nahi izan dien mezua birgogoratzea.

Azken saioari bukaera emateko, ikasleen auto-ebaluazioaren ondoren, irakasleak landutakoaren laburpen xumea egingo du eta ikasleei bi alderdiren inguruan behatutakoaren berri emango die: euskararen erabilera eta talde lan autonomoa. Gainera, tailerren bidez landu nahi izan den ideia birgogoratuko du: euskarazko ahozko erabilera eskolan zein eskolatik kanpo aberasgarria eta garrantzitsua da, eta jolasean ere euskaraz aritu daiteke. Horrez gain, saioetan zehar eman diren aurrerapauso eta alderdi positiboak azpimarratuko ditu; eta ikasleen artean gatazka edo arazoren bat egon bada, gertaera hau taldearen esperientzia aberasgarri gisa aipatuko du eta ez alderdi negatibo gisa.

²⁴ Ikasleentzako auto-ebaluazio fitxaren eredu VIII. Eranskinean dago eskuragai.

2.6. Irakaslearen zeregina

Irakasleak azken ebaluaziora arte ez du tailerren noranzkoa kudeatuko eta prozesu osoan zehar behaketa lanetan arituko da. Hala ere, saihestezina izango da ikasleek irakaslearen laguntza zuzena eskatzea. Irakasleak ikasleak lagundu behar ditu, baina beti laguntza neurtuz ikasleen espazioan gehiegirik sartu gabe: “El rol del docente gana en matices (...) porque debe profundizar en la adecuación del discurso oral monogestionando y, al mismo tiempo, debe aprender a callar más. Callar para que la palabra circule en el aula en direcciones diversas.” (J. Palou, 2005: 10) Gainera, jolasak aurrera eramateko espazioa eta materialak kudeatu beharko ditu irakasleak²⁵; ikasgelako lan giroa egokia, ikasleentzako erakargarria eta motibagarria izan dadin: “Debe crear espacios (...) debe regular las intervenciones, contrastarlas y focalizar la atención hacia puntos clave.” (J. Palou, 2005: 10)

2.7. Ebaluazioa

Bi ebaluazio egingo dira. Batetik, ikasleek tailerren metodologia eta euren burua ebaluatuko dute²⁶. Bestetik, irakasleak prozesu osoa ebaluatu beharko du N. Sepúlveda, I. Barra eta J. Sánchez Milara (2006) autoreek aipatu bezala. Horretarako, saioz saio behaketa zorrotza egin beharko du, txoko bakoitzean gertatzen ari denari erreparatuz.²⁷ Horrez gain, prozesuaren amaieran, esku-hartze proposamen honetarako ikasleek eskuratu beharreko hiru helburu zehatzen²⁸ lorpenaren inguruan hausnartu beharko du irakasleak; zeregin horretarako ebaluazio irizpideen, ebaluazio adierazleen eta ebaluazio tresnen²⁹ laguntza izango du.

Egia da hizkuntzaren erabilera neurtzea zaila izan daitekeela, baina irakaslearen behaketa prozesua errazteko ahalbidetu da ikasleen lan autonomia. Gainera, ebaluazioa errazteko material ezberdinak sortu dira: ikasleentzako auto-ebaluazio galderen fitxa, irakasleen behaketa jarraitua ahalbidetzeko behaketa kontrol orria, eta hasieran finkatutako helburuak ebaluatzeko amaierako ebaluazio taula. Irakaslea

²⁵ IX. Eranskinean Irakaslearentzako Gida ikusgai dago, tailerrak prestatu eta kudeatzeko irakaslearentzako informazio garrantzitsuena laburbilduz.

²⁶ Ikusi 3.5 ataleko 3. Fasea.

²⁷ X. eranskinean irakaslearen behaketa prozesua errazteko, saio eta talde bakoitzarentzako kontrol orriaren eredua dago.

²⁸ 3.1. atalean aipatuak.

²⁹ XI. eranskinean ebaluazio irizpide, ebaluazio adierazle eta ebaluazio tresnen taula kontsultatu daiteke.

euskararen erabileraren neurketan zentratuko da batik bat, ahozkotasanaren kalitatea bigarren maila batean utziz; eta taldean modu autonomoan aritzeko ikasleen gaitasuna ere kontuan hartu beharko du.

3. Ondorioak

Gradu amaierako lan hau egiteko hautatutako gaia “Ikuspegi eta metodo ezberdinak hizkuntzen irakaskuntzan” izan zen. Izenburu honetatik abiatuta, hurbileko eskola baten erabiltzen zituzten ikuspegi eta metodoen azterketarekin hasi bezain laster, eskolako errealitatearen parte zen hutsunea agerian geratu zen: euskara hizkuntzaren ahozko adierazpena lantzeko ikuspegi, metodo edota material berri baten beharrezana. Izan ere, ikasleek euskaraz ahoz adierazteko arazoak zituzten. Arazo horren jatorria edo zergatiak jakiteko asmoz, herria eta eskola bera aztertu ziren eta ikasleek etxetik jasotzen zuten gaztelaniazko hizkuntza ereduak eskolan eragin zuzena zuela ondorioztatu zen.

Eskolak ikasleak alfabetatzearekin batera euskaldundu egin behar ditu, familia askok euskara jakin arren, ez dutelako egunerokotasunean naturalki erabiltzen. Guzti honen eraginez, ikasleek ez dute euskara komunikatzeko tresna errealtzat ikusten eta eskolak euskara idatziaren dimentsioan emaitza onak dituen arren, ahozko adierazpenaren kasuan ez da hori gertatzen. Aurreko guztiagatik, esku-hartze enpiriko baten proposamena diseinatu zen, eskolako beharrian errealari erantzuna emateko. Esku-hartze proposamena egituratzeko metodologia ezberdinak arakatu ziren eta azkenik, jolasetan oinarrituriko ikaskuntza tailerrak aukeratu ziren.

Ahozko adierazpenaren lanketak izaten dituen ebaluazio zailtasunak gainditzeko, tailerrak umeen lan autonomoa bideratzeko diseinatu dira berdinen arteko tutoretzen taldekatze ezaugarrietan oinarriturik. Modu honetan, ikasleak taldeka ahozko adierazpena modu naturalean sustatuko duten tailerrak edo jolasak burutuko dituzte euren kabuz, eta talde bakoitzean etxean euskaraz mintzatzen den ikasle bat egongo da tutorearen lana edo hizkuntzaren inputa eskainiz. Honi esker, irakaslearen behaketa lana eta ebaluazio jarraitua ahalbidetzea espero da.

Idazki guztian zehar sarritan aipatu bezala, aurkeztutako esku-hartzea proposamena besterik ez da. Denbora eta bestelako arazo akademikoengatik ezin izan da ikasleekin

praktikan jarri. Hala ere, eskola datorren ikasturtean aplikatzeko prest dago eta are gehiago, lan honi jarraipena emango dion emaitza eta aplikazioaren ondorengo ondorioak jasoak izango dira esku-hartzerako diseinaturako ebaluazio tresnen bidez. Beraz, esan daiteke, gradu amaierako lan honetan egindako lanak bere fruituak eman dituela. Batetik, euskarazko ahozko adierazpena lantzeko esku-hartze proposamen bat sortu delako hurbileko errealitate baten beharrianari erantzuna emanez, eta bestetik, etorkizunean proposamena aplikatzeko aukera egongo delako.

4. Erreferentzia bibliografikoak

- Ávila, N. (2009). Talleres de arte con adolescentes hospitalizados. Una experiencia de comunicación. 2014-04-24ean hartua, helbide honetatik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=35614572019>
- Careaga, A., Sica, R., Cirillo, A. & Da Luz, S. (2006). Aportes para enseñar e implementar un taller. 2014-01-6an hartua, helbide honetatik: http://www.smu.org.uy/dpmc/pracmed/ix_dpmc/fundamentaciontalleres.pdf
- Duran, D. (2006a, uztaila, abuztua). Tutoría entre iguales, la diversidad en positivo. Aula de innovación educativa, 153-154, 7-10.
- Duran, D. & Blanch, S. (2006b, uztaila, abuztua). "Read on", un programa escocés para la mejora de la lectura. Aula de innovación educativa, 153-154, 12-16.
- Eusko Jaurlaritz. (2009, 2010a, 2011). Ebaluazio Diagnostikoa. Ikastetxeko Txostena. Lehen Hezkuntzako 4. maila.
- Eusko Jaurlaritz. (2010b). Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2014-04-01ean hartua, helbide honetatik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_vigente/dc_educ_basic_e.pdf
- EUSTAT. (2011). Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2013-12-10ean berreskuratua, helbide honetatik: http://eu.eustat.es/elementos/ele0000400/ti_Euskal_AEko_biztanleria_lurralde-eremuaren_ama-hizkuntzaren_eta_etxean_hitz_egiten_den_hizkuntzaren_arabera_2011/tbl0000490_e.html#axzz331zeFFeX
- Filliat, M. & Silva, M.A. (1997, maiatza). Los talleres de aprendizaje: una propuesta favorecedora de atención a la diversidad. Aula de innovación educativa, 61, 51-54.
- Gibb J., (1996). *Manual de dinámica grupal, 17ª edición*. Lumen. Humanitas.
- Palou, J. (2005, abendua). ¿Qué va a salir del saco? La construcción del texto oral en el aula. Aula de innovación educativa, 147, 7-10.
- Richards, J.C. & Rogers, T. S. (2003). Enfoques y métodos en la enseñanza de idiomas. Madrid: Edinumen.
- Sepúlvera, N., Barra, I. & Sánchez Milara, J. (2006, uztaila, abuztua). Una experiencia de tutoría entre iguales que enriquece las opciones metodológicas en un centro. Aula de innovación educativa, 153-154, 23-27.
- Tornero, Y. (2009). Las actividades lúdicas en la clase de ELE. Ventajas e inconvenientes de su puesta en práctica. Madrid: Edinumen.

Uribarren, P., Badiola, R., Baraiazarra, L., Goikoetxea, J. L., Solabarrieta, T. & Aurrekoetxea, G. (1991). Adorez 5, eskola-hiztegia. Bilbo: Elkar.
 Ulibarri Programa. (2010). Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektua 2010/14.

Tailerrentzako materiala. Ikasle eta irakaslearen gidetan ageri diren irudien jatorrizko web orriak . 2014-05-16an berreskuratua, helbide hauetatik:

- “Zer naiz?” jolasa: <http://jackiegloves.com/2009/07/30/que-tengo-en-el-coco/>
- “Hitz ezkutuak” jolaseko orrazia: <http://www.colorearjunior.com/dibujos-para-colorear-de-moda-y-belleza.html>
- Bermeoko portuko irudia: <http://www.nosolofoto.com/galeria/v/Emilio/Playas+y+Puertos+de+Bizkaia/puerto+deportivo+santurtzi.jpg.html>
- Zumaiaiko portuko irudia: <http://www.casaruralpaisvasco.net/pais-vasco/pueblos/zumaia/>
- Hendaiaiko portuko irudia: <http://www.panoramio.com/photo/57679585>
- Biarritzeko portuko irudia: <http://www.webcampista.com/foro/foro-campista/31314-ayuda-me-podriais-aconsejar-pueblecitos-de-encanto-justo-del-otro-lado-de-la-frontera-francesa-al-pasar-irun.html>
- Euskal Herriko mapa mutua: http://es.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herria#mediaviewer/Archivo:Euskal_Herria_territorios2.sgv.jpg
- Uharte bakartiaen irudia: <http://www.imagui.com/a/isla-en-dibujo-idKbGGGoK>
 - “Hurbil” abestiaren letra: <http://zeamays.bandcamp.com/track/hurbil-2>
 - “Bixotza suten” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2113582>
 - “Noraezean” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2059887>
 - “Ekainak 24” abestiaren letra: <http://www.musica.com/letras.asp?letra=2139427>
 - “Bandera, untzi ta kalabera” abestiaren letra: <https://www.youtube.com/watch?v=S3ZOKbMBliQ>
 - “Zer naiz?” eta “Hitz ezkutuak” jolasentzako irudiak: <http://objetos.dibujosparacolorear.org.es/>
- <http://www.dibujalia.com/>
- <http://www.webparaninos.com/colorear-dibujos-objetosvestir-menu.html>
- <http://www.imagui.com>
- http://www.es.clipproject.info/galeriadeimagenes/objetos_dibujos_para_colorear.html
- <http://imagenesparapintar.net/elementos-y-objetos/>
- <http://www.guiainfantil.com/galerias/dibujos-para-colorear/dibujos-para-colorear-del-colegio/dibujo-para-imprimir-y-colorear-de-un-lapiz/>
- <http://www.pekedibujos.com/varios/zapatos-para-colorear.html>
- http://www.pintodibujos.com/2012_01_01_archive.html
- <http://www.conmishijos.com/ocio-en-casa/dibujos-para-colorear/dibujos-s/dibujos-sacapuntas.html>
- <http://rosafernandezsalamancadibujos.blogspot.com.es/2014/03/muebles-y-objetos-de-la-casa-para.html>
- http://www.plusesmas.com/ocio_en_casa/colorear_ninos/categoria/10/1_56.html
- <http://servicios.educarm.es/admin/webForm.php?ar=316&mode=visualizaAplicacionWeb&aplicacion=ASTRONOMIA&web=32>
- http://spanishkidstuff.com/flashcards/bathroom_objectsSp.html
- <http://dibujos-de-los-usuarios.dibujos.net/elefante-3.html>
- <http://dibujoscolorear.es>

